

Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Ordizian, **2018ko martxoaren 1ean**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **Ohiko** deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Sra. Iزارo Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea


KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

EGUNEKO GAI-ORDENA

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2018ko urtarrilaren 25ean egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- Otsaileko kontratazioei dagozkien Kontu-hartzailearen ingerak.
- 4.- EH-BILDUREN mozioa, KULTUR LABi buruzkoa.
- 5.- Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa, martxoaren 8ko grebaren aldekoa.
- 6.- PSEE-PSOEn mozioa, sexu erasoen aurkako APP bat sortzeari buruzkoa.
- 7.- Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa pentsio duinen aldeko herri-mugimendua babesteko.
- 8.- Zuberoa kalean dagoen lurpeko aparkalekua ustiatzeko zerbitzuaren kontratua suntsitzea.
- 9.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua erregulatzeko Araudiaren hasierako onarpena.
- 10.- Salmenta Ibiltaria arautzen duen Ordenantzaren hasierako onarpena.
- 11.- Kreditu gaikuntza aparkaleku bat egiteko proiektuaren erredakziorako.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- EH-BILDUK eta O.ORAINek aurkeztutako mozioa, Aranzadi Elkartearen txostenaren inguruan Enirio-Aralar Mankomunitateko Batzordeak hartutako erabakiari buruzkoa.

GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK


- ASKAPENAREN eskaera
- Osoko Bilkurak hartutako erabakien jarraipena
- Aparkatzeko dauden beharrak aztertzeke lan-mahai bat osatzeko eskaera

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00etan

AMAIERA ORDUA: 22:45ean





Osoko Bilkura hasi aurretik, Alkate jaunak proposatzen du 20:00etan Bilkura etetea plaza nagusian egongo den elkarretaratzean parte hartu ahal izateko. Emakumeen mugimenduaren aldeko elkarretaratzea da, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta egingo diren ekintzen programaren barruakoa.

Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanaz.

1.- 2018ko urtarrilaren 25ean egindako Ohiko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2018ko urtarrilaren 25ean egindako Ohiko Bilkuraren akta-zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza And.

Aktaren 3.puntuari buruzko informazioa eskatzen du (Urtarrileko kontratazioei dagozkien Kontu-hartzailearen ingerak), hain zuzen ere, ALOTZA HAURTZAINDEGIAk haur-eskola zerbitzua emateko esleipen kontratuaren egoerari buruz.

Alkate jna.

Erantzuten dio legeak ezartzen duen behin betiko bermea jartzea falta dela eta hori egiteko apirilera arteko epea eman zaiela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.


2.- Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.






Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

3.- Otsaileko kontratazioei dagozkien Kontu-hartzailearen ingerak.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (02/2018): AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari.honako kontratu hauek epez kanpo daudela iakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Razon social	Objeto del contrato	Kontratoa	Vto plazo ejecucion	Luzapenak	Kontratoar en prezioa	Gastado 2016
Gesmunpal	Recaudacion ejecutiva	03/11/2003	03/11/2007	—	Variable	30.943,58
Juan M. Garmendia Amundarain	Conserje Casa de cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84+ IVA mensual	42.817,20
Landarri S.L.	Servicio de cementerio	10/03/2005	10 años 10/03/2015	Decreto prorroga hasta nueva adjudicacion Vto:12/03/2016	Precio maximo 18.000 euros + IVA	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Servicio Ayuda Domiciliaria	24/12/2010	Maximo 5 años 24/12/2015	Prorroga anual hasta nuevo contrato	Segun tarifas	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Servicio publico de intervencion socio-educativa en medio abierto con jovenes y menores en situacion de riesgo.	27/04/2012	Maximo 4 años . 27/04/2016	Prorroga anual hasta nuevo contrato	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 € IVA incluido	63.806,72
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	Gestion centro D'Elikatuz	24/07/2012	Maximo 4 años . 27/04/2016		Precio contrato: 90.000 € IVA incluido.	102.755,36
INDOK	Gestion Munigex	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 € IVA incluido.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 € IVA incluido.	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano	Contratacion provisional 10/10/2013	Indefinida hasta nueva contratac.		18,07 €/ hora +IVA	163.343,53
Ainara Ormaetxea Harto	Servicio de Inmigracion	01/01/2016			21.773,95.-€ IVA incluido.	21.966,02
GUARDERIA ALOTZA Gurasoen Elkartea	Gestion Serv. Munic. Escuela Infantil.	01/09/2009	Maximo 6 años 01/09/2009		Ver contrato. Tarifas +subv+contra prestacion ayto de 33.500	388.104,44



a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea."

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia '1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."


1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretizakoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.



"70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

"213. artikulua. Barneko kontrola."

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiar, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.


Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoren eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:



ERREPARO FAKTURAK OTSAILA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/02	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	16	38000
LORRATZ ELKARTEA	1	5460,75
INDOK	1081	939,26
LAIA, S.COOP.	18-jun	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	002U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	84	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	85	1.814,49
EULEN, S.A.	3133547	5227,33
EULEN, S.A.	3144215	15926,36
EULEN, S.A.	3152989	15639,78
EULEN, S.A.	3158168	17522,69
EULEN, S.A.	3161338	15890,82
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3511313	5.904,37
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	7	312,58
LANDARRI, S.L.U.	1800012	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800013	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800014	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800015	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800016	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800017	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800022	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800043	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800044	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800045	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800046	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800093	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800094	320,87
	GUZTIZKOA	141.222,24


ONDORIOAK:

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea

Miguel Zubizarreta Elicegui

Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri eman da.



2018/0192. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko otsailaren 27an egindako 02/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

- * Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- EH-BILDUren mozioa, KULTUR LABi buruzkoa.


Proposamea

ZIOA

Ordizia hiribildu sortu zela 750.urteurrena dugu aurtengoa eta herriko talde eta eragileek ekintza ugariz osaturiko egutegia aurkeztu dute. Dakigunez, Ordiziako kultur talde eta eragileek herriari izugarriko bizitza ematen diote, eta aurten data ezin hobea baten aurrean gaude dugun ondare aberats hau indartu eta aurrera begira proiektatzeko.

Herriko kultur-potentziala azpimarratu nahi genuke eta honetaz jakitun izanda, orain arteko ibilbideari errepasso azkar bat egin nahi genioke:

Atzera begira:



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

2012an: K6 enpresak azterketa bat egin zuen kultur-azpiegituren inguruan.

2012an: GAZEk sorkuntza tailer bat antolatu zuen Ordiziako Herri Antzokiaren inguruan.

2013an: Herri Antzokiaren arkitektoa izan zen Domingo Unanue arkitekto ordiziarren inguruko ikerketa lana burutzeko beka eman zuen Ordiziako Udalak, Víctor Mendizabal II. Ikerketa Bekari esker. Lana 2015ean aurkeztu zen udalean.

2013-2014 urteetan: urte anitzetako inbertsio moduan Herri Antzokiaren azpian kokatzen diren Nadal enpresaren lokalak erosi ziren.

2013an: Docomomo Arkitektoen Nazioarteko Fundazioak eta COAVN/EHAEOk (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak) Ordiziako Herri Antzokia eraikina nabarmendu zuten XX mendeko arkitektura garaikidearen eraikin "paradigmatiko" bezala.

2013an: Musika taldeentzat lokalak/ Antzerki eta dantzarentzat lokalak.

2015ean: Foru Aldundiko parte hartze prozesuan lehenetsitako proiektuetako bat izan zen.

Ordiziako Herri Antzokia, bertakoa zen Domingo Unanue arkitektoak eraiki zuen 1928an, eta urte hartako azaroan 10ean zabaldu zen. Ordudanik ia etenik gabe ordiziarren zine-antzokia izan da. Eraikuntza bera, gida eta katalogoek behar bezala jaso ez badute ere, arrazionalismoaren edo mugimendu modernoaren eraikinik aitzindariena da Gipuzkoa osoan (Donostiako Klub Nautikoa bera baino lehenagokoa), eta mota horretako eraikuntza publiko bakarrenetakoa.

80. hamarkadan Ordiziako Udalak erosi zuen, eta publikoa da egun. Alabaina, Unanuek azpian eraiki zituen industria tailerrak orain dela gutxira arte funtzionamenduan egon dira, eta berriki erosi ahal izan ditu Ordiziako Udalak, esku pribatuan zati txiki bat baino geratzen ez delarik. Zine-antzokia goiko kalera zabaltzen den moduan, azpian dituen bi tailerretarako solairuak azpiko plazara zabaltzen dira, eta industriarako pentsatu ziren tailer haiek kultura ekoizpenerako bideratuko balira eskualde mailako kulturgune erakargarria sortzeko aukera legoke.


Makina bat dira Goierrri osoan zehar barreiatuak dauden antzerki taldeak, dantzariak, abesbatzak, musika bandak, etab. Huentzat guztientzat Herri Antzokiko kulturgunea elkargune paregabea izango litzateke. Betiko zine-antzokia oinarritzat hartu, eta bere azpian sortuko lirakeelako entsegurako aretoak, bilguneak, ikus-entzuneak etab.

Bertan, eskualde mailako taldeak elkartzeko aukera legoke, euren arteko sinergiak batzeko, elkarrekin egitasmo handiagoak burutu ahal izateko, antzokia bera entsegurako erabiltzeko, etab.

Hori guztia, azpiko plazaren mailan legokeen elkarguneak plazaratuko luke nolabait. Kafe-antzoki baten moduan, plaza bere eginez, espazio publikoa bereganatuko lukeelako, ekimenak eraikuntzatik haratago aire libreria aterata, eta barnean formatu ertaineko emanaldiak eskainita, antzerkiak, kontzertuak, erakusketak etab.

Gainera, kontuan izan behar da sormena jende ezberdina batzen den unean bertan hasten dela ideien trukaketarekin, eta horretarako, eztabaidarako bilguneak ezinbestekoak dira, entseguen aurretik, eta ondoren elkartzeko lekuak alegia.

Kulturgune honek, eskualde mailan dagoen gabeziari erantzuteaz gain, arkitektura modernoaren ondarea den eraikin osoaren berreskurapena lekarke, Gipuzkoan dagoen adibiderik aitzindari eta bikainetako bat balorean jarriz.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

2015ean, Kultura Kontseilua - Azpiegituren Lantaldea bildu zen hiru aldiz, bertan hainbat kultur eragilerekin batera Herri Antzokia oinarritzat hartuta sortu nahi den kulturgunearen inguruan hausnarketa ariketarekin hasi zen, eta hainbat ondorio ere erdietsi ziren.

Harrez geroztik, legegintzaldi honetan kultur batzordea ez da deitu ere egin, eta gure harridurarako, Legorretako Etxezarretako proiektua eta Beasaingo Olaran proiektuekin topatu gara, Ordizian halakorik existituko ez balitz bezala. Larriena da, Beasain eta Legorretako proiektuak Goiekik bultzatu dituzenez, bertara hurbildu garela informazio eske, eta Ordizian halako egitasmo edo proiektu bat zegoenik ere ez zekitelara.

Orain, bi urteren ondoren, Ordizia 750. urteurrenerako kultur-eragileak lanera deitzen dituzue beste behin, eta oraindik baliabide gabe edo oso baliabide mugatuekin jarraitzen dute. Okerrera da, "Kultur-Lab" deitu zaion proiektu bat saldu dela ekintzen artean, eta urteurrena hasi den arren, ezer ere ez da martxan jarri.

Kultur Saitetik adierazi digutenez, Udala horrelako proposamenak lantzen dituen talde multidisziplinari berekin jarri da harremanetan: Urbanbat eta Conexiones Improbables. Honez gain, Goiekin Olaran eta Etxezarreta proiektuak egin dituzten GAC enpresarekin ere egin da bilera.

Herri Antzokiaren eraikina euskal herri mailako altorra ez ezik, estatu mailako altorra da, eta are eta garrantzitsuagoa dena, eraikina edukiz betetzeko ere Ordiziak sekulako altorra dauka herrian dauden kultur eragile eta taldeekin. Horregatik, ezinbestekoa da dagokion hausnarketa berrabiaraztea, eragile eta talde ezberdinen eskutik Ordiziak behar duen kulturguneari nolako izan behar duen irudikatzen joan gaituzten.

Kontuan izan behar da, Herri Antzokiak zine-antzokiaren azpian dituen bi solairuek azalera mugatua dutela, eta gainera, erdi-soto tankerako solairuak direla, hau da, ez dutela argiztapen eta aireztapen naturalerako aukerarik fatxada guztietan. Horregatik, ezinbestekoa da kulturgunearen hedapena aintzat hartzea, alde batetik, gaur egun Amets-Bide eta Urrup taldeek elkarbanatzen duten lokalaren alderantz, baina baita gaur egun anbulategiaren azpian dauden lokaletarantz, eta zergatik ez, agian baita anbulategiak berak hartzen dituen lokaletarantz, gaur egungoa txikiegia geratu dela-eta lekualdatzea aurreikusten baita.

Aipatu guztiagatik, kulturari dagokionean, Ordizian arlo honetan ari direnekin batera, aurrera egiteko garaia heldu da, erabakiak hartu baino lehen hausnarketa sakonak burutu behar baitira.

ESKAERA

- 1. Ordiziako Udalak Kultur-Lab proiektua abiatu dezala ahal bezain azkarren, herriko talde eta eragileekin batera Ordiziak behar duen kulturgunearen inguruan dagokion hausnarketa prozesua has dadin.**
- 2. Ordiziako Udala lehenbailehen jar dadila Goiekirekin elkarlanean, Nadal fabrikaren berreskurapena ere eskualde mailako proiektioaren barne sartzeko, eraikin industrialak biziberritzeko estrategiaren barnean.**


Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jn.

Mozioaren arrazoia azaltzen du. Esaten du, kultur elkarte eta taldeek garrantzi handia dutela udalerraren bizitzan eta garapenean, eta 750. urteurrenaren ospakizuna oso aukera ona dela merezi duten protagonismoa emateko.

Mozioak eskatzen du:



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

1). Ordiziako Udalak Kultur-Lab proiektua abiatu dezala ahal bezain azkarren, herriko talde eta eragileekin batera Ordiziak behar duen kulturgunearen inguruan dagokion hausnarketa prozesua has dadin.

2) Ordiziako Udala lehenbailehen jar dadila Goiekirekin elkarlanean, Nadal fabrikaren berreskurapena ere eskualde mailako proiektioaren barne sartzeko, eraikin industrialak biziberritzeko estrategiaren barnean.

Alkate jn.

Esan du Beasainen eta Legorretan Goiekik egin duena egitasmoen koordinazioa izan dela horiek osagarriak izan daitezen.

Goiekik enpresa-proiektuak direnean bakarrik esku hartzen duela, izaera industrialak denean.

Ezenarro jaunari erantzuten dio Kulturako aholku Batzordea hirutan bildu dela.

Gaineratzen du, mozioan jasotzen diren hitzengatik ematen duela proiektu hau EH-BILDUREkin sortu dela, baina gogoratzen du José Ramón Gaztañaga jauna Alkatea zenean, 1980 inguruan, gai honekin hasi zela Etxezarreta Zinemaren lokala erosi zuenean eta Alejandra Iturrioren legegintzaldian, horrek lokalen erosketekin jarraitu zuela.

2015era arte ez da aztertu eraikinean zer egin daitekeen.

Proiektuaren garrantzia ez da zalantzen jartzen, lehentasunezko proiektua da eta aipatutako eragileei dagokienez, zalantza barik aintzat hartu behar dira, bai proiektuaren azterketan, bai diseinuan.

2015etik hiru enpresarekin harremanetan jarri gara (horietako bat EH-BILDUK proposatutakoa). Halaber, kudeaketak egin dira diru-laguntzak eduki ahal izateko. Lan egin da eta lanean ari gara herriarentzat interesgarria izango den proiektu bat osatzeko.

Horregatik, mozioaren aurkako botoa emango dute.

Maiza and.


Esan du urte askotan zehar Kultura zinegotzia izan dela eta uste du hainbat pertsonaren lorpena izan denez, zilegia dela besteen lana aitortzea.

Gogoratzen du 2012an, K6 Gestión Cultural enpresa proiektua lantzen hasi zela eta hurrengo hiru urteetan nahiz eta ez den ezer zehaztu proiektua lantzen jarraitu zela. Hau da, kontsultak egin, beste eredu batzuk ikusi eta hainbat kudeaketa landu ziren.

Umiltasuna eskatzen du, uste du egin behar dena lanean jarraitzea dela. Garrantzitsuena herria da eta lorpenak bati edo besteari egozteari utzi behar zaizkio.

Aranburu jn

Egin berri diren kudeaketez informatzen du. 3 enpresarekin harremanetan jarri dira eta eraikina erakutsi diete, Goiekirekin egon da, bi elkarerekin bildu da, eta kudeaketa horien guztien berri izanda, ez du oso ondo ulertzen mozioa Osoko Bilkurara eramatearen zergatia.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Sukia and.

Maiza andrearen interbentzioarekin guztiz ados dago.

GOIEKlri dagokionez, eskualdeko garapen agentzia bat dela dio eta gaia ere bideratu beharko lukeela.

Halaber, mozioaren edukiarekin guztiz ados dago.

Ezenarro jn.

Azpimarratzen du, mozioak eskatzen duen bakarra proiektua abian jartzea dela. Goiekik sustau dituen Beasaingo edo Legorretako proiektuak ikusita, ez du ulertzen zergatik Ordizian ez den gauza bera egin.

Dubreuil jn.

Bat egiten du mozioaren hainbat ikuspegirekin, besteak beste, proiektuak daukan garrantziarekin, eragile sozialen garrantziarekin, baina ez dator bat beste ideia batzurekin.

Herri Antzokiaren proiektu integralaren ideia ez dator 2012tik, baizik eta askoz lehenagotik, zehazki, Alejandra Iturriozen legegintzalditik. 2007-2011 legegintzaldian eraikinaren hainbat lokal erosi ziren Kultur Etxearen proiektu integrala egiteko asmoz.

Bakoitzari berea aitortu behar zaio.

Ez du ulertzen zergatik parte hartu behar duten kultura eragileek bakarrik. Eragile sozial gehiagorengan eragina duela uste du, ez bakarrik kulturalengan.

Uste du lantalde edo mahai bat sortu behar dela kultura-ekipamenduaren inguruan hausnartzeko. KULTUR LAB ekipamendu guztien azterketa egiteko mahai bat bihurtu daiteke.

Maiza and

Esan du 2007-2011 legegintzaldian denbora luzez funtzionatzen egon diren lantalde bi sortu zirela. K6 Gestión Cultural enpresak, bere azterketan, kultur-guneen beharrei buruzko azterketa egin behar zela isaltu zuela.

Bakoitzak bere arloa, bere saila kudeatu du eta Kultura beti izan da udalerriko behartsua. Ez da sinergia indartsurik sortzen, azken finean, ez da kultura sortzeko aukerarik ematen, soilik kontsumoa.

Min hartu du Alkateak gai hau Gaztañaga jaunarekin hasi zela eta haiekin bukatuko dela esan duenean, tartean, jende askoren lana egon denean.

Dubreuil jn.


Gustatuko litzaioke udal-ekipamenduen inguruan lehenbailehen hitz egitea.

Sukia and.

Dubreuil jaunarekin ados dago, baina beharrezkoa ikusten du alderdi kulturalari bultzada ematea.

Ezenarro jn.

Ez dio ardura lorpenak nori egozten zaizkion, baina lanean jarraitu behar dela.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Hiru bilera egon dira eta beraz, hiru akta daude eta baita ondorioak ere. Ondorioa hau da: eraikina ematen du ematen duenerako, hortaz, norantz goazen hausnartzeko momentua da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa, martxoaren 8ko grebaren aldekoa.

Proposamea

Aurrekariak

Onartu ezina da indarkeria matxistak, Espainiako estatuan, eta 14 urtetan bakarrik, 1.000 emakume baino gehiagoren eraiketa ekarri izana; ildo horretatik, XXI. mendean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak hainbat ondorio zital eragiten ditu mundu osoan.


Desberdintasun hori egunero nabarmentzen da hainbat alorretan, baino ezbairik gabe, lan-eremuan nabariagoa da gainerako guztietan baino: generoen artean, %20ko aldea nabari da soldatetan, gizonen alde; mundu osoan oraindik ere emakumeak dira ordaindu gabeko lanaren karga neurrigabe bat hartzen dutenak; eta seme-alabak zaintzeko erantzukizunak bi gurasoen artean banatzea ahalbidetzen duten amatasun- eta aitatasun-baimenak nuluak dira, edo oso urriak.

Mundu osoan, lan egitearen truke diru-sarrerak lege-xedapen formaletatik kanpo (estatuko zerga-kontrolak barne) jasotzen dituztenen %63 emakumea da; emakume migratzaileek gizon migratzaileek baino lan-baldintza prekarioagoak dituzte, lanaldi luzeagoak egiten baitituzte, babes soziala jasotzeko ia aukerarik gabe; emakumeek lan-eremuan jasaten duten indarkeria errealitate onartezina da: Europar Batasunean bakarrik, sexu-jazarpena jasa izana ziurtatzen duten emakumeen %55etik, %32k lantokian jasan du.

Munduan, erretiro-pentsio bat jasotzeko legeek aurreikusitako adinera iritsita ere inolako pentsiorik jasotzen ez duten herritarren %65 emakumea da. Eta hori datu gutxi batzuk aipatzearren. Argi dago, beraz, munduko emakumeek oso egoera kezagarria bizi dutela lan-eremuan.

Horren aurrean, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa desagerraraztea, betebeharrak etiko bat ez ezik, konpromiso historikoa atzerazina ere bada, estatu-erakunde guztien parte-hartze aktiboa eta protagonista eskatzen duena.

Horregatik, eta mundu osoko mugimendu feministako erakunde ugari datorren martxoaren 8rako bultzatutako emakumeen nazioarteko lanuzteari sindikatuek lege-babesa emango diotela iragarri berri dutenez, behar-beharrezkoa da erakundeek ere giza eskubideen aldeko mundu-mailako borroka hori babestea.



Proposamena.

1.- Udalaren osoko bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio har ditzala dagozkion neurriak munduko emakumeen aurkako diskriminazio soziala, legala, politikoa, morala eta hitzekoa desagerrarazteko konpromisoa hartu duten pertsona guztiei Konstituzioan eta gure legerian aurreikusitako funtsezko greba- eskubidea baliatzeko aukera bermatzeko.

2.- Udalaren osoko bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio babestu, iragarri eta bultza dezala nazioarteko hainbat erakundek, sindikatuekin elkarlanean, martxoaren 8rako deitutako emakumeen lanuztea.

3.- Ordiziako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die handi dezatela indarkeria matxistaren aurkako borrokarako eta berdintasunerako aurrekontua.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:Sukia and.
Mozioa irakurtzen du.

Mozioan 4. puntu bat sartzeko proposamena egin du, atal xedatzailean testu hau gehitu nahi du:

“4.- Gaurko Osoko Bilkurara etortzeagatik zinegotzi guztiek jasoko duten diru-kopurua KIMETZ elkarteari ematea. Diru hori elkarteak, bere helburuen barruan, onuratzat hartzen dituen ekintzetarako erabil dezan.”

Beraz, proposamena honela idatzita geratzen da:

Aurrekariak


Onartu ezina da indarkeria matxistak, Espainiako estatuan, eta 14 urtetan bakarrik, 1.000 emakume baino gehiagoren erailketa ekarri izana; ildo horretatik, XXI. mendean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak hainbat ondorio zital eragiten ditu mundu osoan.

Desberdintasun hori egunero nabarmentzen da hainbat alorretan, baino ezbairik gabe, lan-eremuan nabariagoa da gainerako guztietan baino: generoen artean, %20ko aldea nabari da soldatetan, gizonen alde; mundu osoan oraindik ere emakumeak dira ordaindu gabeko lanaren karga neurrigabe bat hartzen dutenak; eta seme-alabak zaintzeko erantzukizunak bi gurasoen artean banatzea ahalbidetzen duten amatasun- eta aitatasun-baimenak nuluak dira, edo oso urriak.

Mundu osoan, lan egitearen truke diru-sarrerak lege-xedapen formaletatik kanpo (estatuko zerga-kontrolak barne) jasotzen dituztenen %63 emakumea da; emakume migratzaileek gizon migratzaileek baino lan-baldintza prekarioagoak dituzte, lanaldi luzeagoak egiten baitituzte, babes soziala jasotzeko ia aukerarik gabe; emakumeek lan-eremuan jasaten duten indarkeria errealitate onartezina da: Europar Batasunean bakarrik, sexu-jazarpena jasa izana ziurtatzen duten emakumeen %55etik, %32k lantokian jasan du.

Munduan, erretiro-pentsio bat jasotzeko legeek aurreikusitako adinera iritsita ere inolako pentsiorik jasotzen ez duten herritarren %65 emakumea da. Eta hori datu gutxi batzuk aipatzearen. Argi dago, beraz, munduko emakumeek oso egoera kezagarria bizi dutela lan-eremuan.

Horren aurrean, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa desagerraraztea, betebeharrak etiko bat ez ezik, konpromiso historikoa atzerazina ere bada, estatu-erakunde guztien parte-hartze aktiboa eta protagonista eskatzen duena.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Horregatik, eta mundu osoko mugimendu feministako erakunde ugari datorren martxoaren 8rako bultzatutako emakumeen nazioarteko lanuzteari sindikatuek lege-babesa emango diotela iragarri berri dutenez, behar-beharrezkoa da erakundeek ere giza eskubideen aldeko mundu-mailako borroka hori babestea.

Proposamena.

1.- Udalaren osoko bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio har ditzala dagozkion neurriak munduko emakumeen aurkako diskriminazio soziala, legala, politikoa, morala eta hitzezkoa desagerrarazteko konpromisoa hartu duten pertsona guztiei Konstituzioan eta gure legerian aurreikusitako funtsezko greba-eskubidea baliatzeko aukera bermatzeko.

2.- Udalaren osoko bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio babestu, iragarri eta bultza dezala nazioarteko hainbat erakundek, sindikatuekin elkarlanean, martxoaren 8rako deitutako emakumeen lanuztea.

3.- Ordiziako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die handi dezatela indarkeria matxistaren aurkako borrokarako eta berdintasunerako aurrekontua.

4.- Gaurko Osoko Bilkurara etortzeagatik zinegotzi guztiek jasoko duten diru-kopurua KIMETZ elkarteari ematea. Diru hori elkarteak, bere helburuen barruan, onuratzat hartzen dituen ekintzetarako erabil dezan.

Kontu-hartzaile jn

Azaltzen du, dohaintza egiteko dagokion aurrekontu aldaketa (II. kapitulutik IV. kapitulura) egin behar dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


6.- PSEE-PSOEn mozioa, sexu erasoen aurkako APP bat sortzeari buruzkoa.

Proposamena

Justifikazioa.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Emakundek argitaratu dituzten eta eskuragarri dauden datuen arabera eta behin betiko datuak itxi bitartean egiazta daitekeenez, nabarmen egin du gora sexu-erasoengatik salaketan eta arrazoi beragatik epailearen esku geratu diren pertsonen kopuruak. 2017ko lehen bederatzi hilabeteetako datuak 2016ko aldi bereko datuekin alderatuz gero, igoera % 36,36ra iritsi dela ikusiko dugu. Hortaz, Euskadin bi egunean behin salatzen da sexu-eraso bat.

Horrek guztiak kezkatu egin behar gaitu, eta administrazio publikoek eta, oro har, gizarteak erantzun egin behar dute. Emakumeek jasaten dituzten erasoak geldiarazteko jardun beharra dago, eta horrek erabateko lehentasuna izan behar du guztiontzat, baita gure ekintza publikoaren barruko jardun



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

nagusien xede ere. Ildo horretan, eremu guztietan jardun beharra dago, gure lurraldeko emakume eta nesken segurtasuna bermatu ahal izan dadin eta emakumeak eta neskak gure lurralde eta udalerrietako kaleetan askatasun osoz eta beldurrik sentitu gabe ibili ahal izan daitezen.

Duela gutxi, hainbat ekimen jarri dira abian Euskadiko herri batzuetan. Haien artean, azpimarragarria iruditu zaigu mugikorretarako app baten bidez teknologia berriak aplikatzeko aukera bat. Emakumeek indarkeria matxistari aurrea hartzeko neurri gisa pentsatuta dago, baina lapurretei aurrea hartzeko eta aisia-gauetan neska nerabeen segurtasuna areagotzeko ere balio dezake. Izan ere, neska nerabeek mutilen segurtasun-maila bera izan behar dute kalean ibiltzen direnean.

Ezarri zenetik, ekimen horrek oso eragin positiboa izan du herritarrengan, eta EUDELera iritsi da, euskal udal guztietan aplika dadin.

Hori guztia dela eta, ahaleginak batzeko eta sexu-erasoei hobeto aurre egiteko, honako mozio hau aurkeztu dugu:

MOZIOA:

ORDIZIAko Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioa (APP) ezartzeko, era horretan sexu-eraso oro denbora errealean salatu ahal izan dadin, eraginkortasun handiagoarekin eta bizkorrago jardun ahal izan dadin, eta, horri esker, horrelako delituak saihestu ahal izan daitezen.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Mozioa zertan datzan azaltzen du eta jarraian irakurtzen hasten da.

Uste du eraso sexisten kontra ahalik eta neurri gehien hartu behar direla eta proposatzen den hau horietako bat dela.

Aplikazio horrekin erasoak denbora errealean salatu daitezke eta horren kontra hobeto eta azkarrago jokatu, era berean, biktimak babestua egongo dira.

Eguren jn.

Proposamenaren alde bozkatuko duela esan du eta Dubreuil jaunari galdetzen dio aplikazioak nola funtzionatzen duen.

Dubreuil jn.


Erantzuten dio botoi bat sakatu behar dela eta GPS bitartez, erasotua izan den pertsonaren kokalekua agertzen dela.

Sukia and.

Esan du neurri bat gehiago dela, baina bere kexa adierazten du; izan ere, beti dira emakumeak kontrol-mekanismoak eraman behar dituztenak, hau da, erasotua erasotzaileak beharrean.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa pentsio duinen aldeko herri-mugimendua babesteko

Proposamena

Ordizia Orain udal-taldeak **PENSIO DUINEN ALDEKO HERRI-MUGIMENDUAREN ALDEKO** honako MOZIO hau aurkezten du, onar dadin.

Justifikazioa

Gaur egun, pentsio publikoen arazo nagusia da Gizarte Segurantzak finantziazio-iturria agortu duela, soldatak murriztea, lana prekarizatzea eta, beraz, kotizazioak murriztea eta langabezia areagotzea ekarri duten lan-erreformen ondorioz. Soldata duinik gabe, ez dago pentsio duinik. Horri guztiari gehitu behar zaio finantza-erakundeek eta aseguru-etxeek pentsio-sistema pribatizatzearen aldeko ezkutuko kanpaina oldarkorra egin dutela.

Banketxeek eta aseguru-etxeek harrapakin erakargarria dute aurrean; pentsio publikoetarako diruak (120.000 milioi euro) haien gutizia pizten du. Hortaz, haientzat, zehazgabetasunez eta gezurrez betetako ikerketa sasizientifiko ugaz lagundutako kanpaina hau epe ertaineko eta epe luzeko inbertsioa besterik ez da. Beste behin ere, herri-klaseei iruzur egin nahi diete haien kontura aberasteko.


Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa, "pentsioen itsulapiko" gisa ezagutzen dena, husten ari dira; 2011n 66.815 milioi euro izatetik, 2017an 8.095 euro izatera pasa da.

Egoera horren aurrean, iritzi interesatu batzuek diote epe motzeko irtenbidea pentsioak murriztea dela, gastuak murrizteko ezinbesteko neurri gisa. Ez zaie nahikoa iruditzen pentsioak izoztu izana, edo igoera barregarriak egin izana. Guk uste dugu diru-sarrerak hobetu behar direla, baina Gobernuak ez du azken urteotan inolako neurririk hartu horiek areagotzeko; aukera bat izango litzateke gehien dutenei gehiago ordainaraztea, hala nola SICAV sozietateei, enpresa handiei, errenta altuenei etab. Hori horrela, Gobernuak premiazko neurriak eskatzen dituen egoera larri bat behartu du.

Duela denbora batetik hona, herritarrak antolatzen hasi dira, mugimendu soziala sortzen, eta herritarrok, gaurko eta biharko pentsiodunok, kontzientzia hartu behar dugu, gure iritzia adierazi, eta lehen lerroetan agertu behar dugu Ongizate Estatuaren funtsezko zutabe den hau defendatzeko, horixe suntsitu nahi baitute banketxeek, unean uneko Gobernuaren laguntzaz.

Pentsio publikoak defendatzeko argudioak asko dira, eta pribatizatzea defendatzeko erabiltzen direnak baino askoz ere sendoagoak:

- Joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasieratik, azterketa katastrofistak egin dituzte pentsioen sistema publikoaren gainean. Finkatutako datak iristen joan ahala, ez da iragarpen horietako bat bera ere bete, baina argudio berak erabiltzen jarraitzen dute.
- Pentsioen iraunkortasuna auzi politikoa da, ez ekonomikoa; aberastasunaren banaketarekin lotutako auzia, hain zuzen ere.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

- Pentsio-sistema publikoaren iraunkortasuna bermatzeko, funtsezko faktoreak dira produktibitatea, eta soldaten, kotizazioen eta Estatuak zergen bidez egiten dituen ekarpenen igoera, eta hori guzria ia ez da aipatu ere egiten azterketa horietan.
- Gure pentsio-sistema publikoaren gastua, BPGrekin edo gure aberastasunarekin alderatuta, askoz ere txikiagoa da gure inguruko herrialde gehienetan baino.
- Ez dago zertan pentsioak kotizazio sozialen bidez finantzatu; estatuko baliabide guztiak erabili behar dira estatu horren gastu guztiei aurre egiteko, baita pentsioei ere.
- Pentsioak eskuratzea herritarren eskubide bat da, Konstituzioan jasota dagoena. Honako hau dio 50. artikulua: "Botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko die herritarrei zahartzaroan".
- Pentsio duin bat jasotzea Giza Eskubideen Adierazpena Unibertsalean bermatutako eskubide bat da, zehazki, 22. artikuluan jasotakoa.
- Plan pribatuen emaitzak oso txarrak dira, haien errentagarritasuna negatiboa izaten da gehienetan eta bankuen egonkortasuna zalantzarria da, garbi ikusi dugun eran. Gure pentsioek ez dute banku-espekulazioaren eskuetan egon behar.

Proposamena:

1.- Ordiziako Udalaren osoko bilkurak bere babesa ematen dio pentsioen eta beste neurri sozial batzuen erreformari buruzko Lege Proposamenari.

2.- Ordiziako Udalaren osoko bilkurak publikoki adierazten du erabat ados dagoela Pentsio Publikoen aldeko Plataformak egiten dituen aldarrikapenekin:

Soldata duinak aldarrikatzea pentsio duinak eduki ahal izateko.

Pentsioak urtero igo behar dira KPIren neurri berean edo haren gainetik, 2012an galdutako %1,9tik hasita, gutxienez hileko 1.000 euroko pentsioetara iritsi arte.

Pentsioak jaistea xede duten erreforma berrien aurka gaude.

Pentsioak eta zerbitzu publikoak privatizatzearen aurka gaude.

Pentsio-funts pribatuak, zerga-arintzearen bidez, diru publikoz finantzatzen direla salatzen dugu.


2011az geroztik sustatutako pentsio-erreformetako alderdi negatiboak edo erregresiboak eta 2008ko otsaileko dekretua indargabetzea proposatzen dugu, eta, zehazki, erretiratzeko adina berriz ere 65 urtetan finkatzearen alde gaude.

Ez ditugu egungo pentsiodunen eta erretirodunen eskubideak bakarrik defendatu nahi; horrez gainera, belaunaldi gazteenei ere bermatu nahi diegu zahartzaroan bizitza duina izateko eskubidea, benetako modu eraginkor batean.

Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemari bere horretan eutsi behar zaio, eta, beharrezkoa izanez gero, Estatuaren Aurrekontu Orokorrak erabiliko dira horri aurre egiteko.

Kotizazio-oinarrien eta soldata altuen muga kendu behar da, diru-sarrerak areagotzeko pentsioen zenbatekoak murriztu gabe.

Pentsioen Sistema Publiko bakar bat nahi dugu, kolektiboak diskriminatuko ez dituen.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Nahi dugu, 40 urtetik gorako kotizazioetan, posible izatea 65 urte bete aurretik erretiroa hartzea koefiziente murriztailerik aplikatu gabe.

3.- Ordiziako Udalak parte hartuko du pentsio publikoen alde borrokatzen duten plataformek deitzen dituzten eta pentsioen sistema publikoari eustea eta hura hobetzea aldarrikatzen duten mobilizazio guztietan.

4.- Ordiziako Udalaren osoko bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio jar dadila harremanetan Eusko Legebiltzarrarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, EAEko Arartekoarekin eta Espainiako Arartekoarekin, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urraketa larria azter dezaten. Izan ere, 14. artikulua horrek xedatzen du Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzeko duela, eta definizio hori guztiz suntsitu da Espainiako Gobernuak azken urteotan pentsioen sistema publikoan egin dituen erreformekin. Baliteke aipatutako erakunde horietako batek konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat jarri ahal izatea horregatik.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia and.

Esan du mozioaren asmoa kalean dauden eskaerei ahotsa ematea dela: duintasunez bizi ahal izateko pentsio duinak.

Mozioa irakurtzen du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


8.- Zuberoa kaleko lurpeko aparkaleku zerbitzua ustiatzeko kontratuaren ebazpena.

Proposamena

2002ko martxoaren 21ean, Ordiziako Udalak eta CONSTRUCCIONES BRUES, SA enpresak hitzarmena sinatu zuten, horren xedea izanik '18 HEE'n (Zuberoa kaleko eremua) dagoen eremuko lurpean ibilgailu arinentzako aparkaleku bat eraikitzea, beharrezkoak dituen instalazio osagarriak barru.

Onartutako egitaritze-proiektuak 70 garaje eraikitzea aurreikusten zuen (bi solairutan banaturik). Horren aprobetxamendua administrazio-kontzesioaren bitartez egingo litzateke (75 urtez) aparkalekua bide publikoaren pean baitago.

Enpresa esleipendunak aparkatzeko 70 leku horietatik 38 lekuren administrazio-kontzesioa transmititu zuen, baldintza ekonomiko-administratiboetan jasotako baldintzetan eta udalaren baimena jaso ondoren.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

2011. urtean, enpresa esleipendunak hartzekodunen konkurtsoan sartu zen. Konkurtso-prozeduraren ondorioz, kitapen-fasean, 2017ko martxoaren 20an, Ordiziako Udalari Donostiako Merkataritza-arloko 1. Epaitegiak eman zuen baimenaren berri eman zitzaion; alegia, baimena ematen zen BRUESA CONSTRUCCION, SA enpresak oraindik bere esku zituen 32 garaje-plazen gaineko kontzesio-eskubideak eta 3 trasteleku eta merkataritza-lokal bat DIQUE CUATRO, SL enpresari besterentzeko 129.000 euroan.

Udalak interesgarritzat jo zuen eragiketa, eta BRUESA CONSTRUCCION, SA enpresa esleipendunari proposatu zion, batetik, 2002an sinatutako kontratua suntsiaraztea bi aldeen arteko adostasunez, eta BRUESA CONSTRUCCION, SAri 163.000 euro ordaintzea suntsiarazte horregatik.

Zenbateko horren barruan ondorengo kontzeptuok daude:

- 134.000 euro 32 garaje-plazengatik (4.200 euro plaza bakoitzeko).
- 9.600 euro 3 trastelekuengatik (3.200 euro, bakoitzeko).
- 6.000 euro merkataritza-lokalarengatik.
- 13.000 euro DIQUE CUATRO, SL enpresarentzako kalte-ordain gisa, enpresa horrek BRUESA CONSTRUCCION, SA enpresarekin izenpetutako kontratua suntsiarazteagatik.

Trastelekuak eta lokala erosi izanagatik ordaindu beharreko gastuak eta zergak udalaren kontura izango dira, IIVTNU (gainbalioa) izan ezik; hori, BRUESA CONSTRUCCION, SA enpresak hartuko du bere gain.

Esleipen-kontratuko 43. klausulak esaten du kontratua ebazpenez eten behar dela. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileko 223. artikulua arabera, Administrazioaren eta kontratistaren elkarren arteko akordioa da kontratu publikoa suntsiarazteko bidea, eta 225. artikulua betez, suntsiarazpena elkarren arteko akordioz gertatzen bada, aldeen eskubideak alde horiek baliozki hitzartutakora egokituko dira.

Alde interesdunak kontratua arestian aipatutako baldintzetan ebazteko akordiora iritsita, konkurtso-administratzaileak Merkataritza-arloko Epaitegiari baimena eskatu zion 2017ko martxoaren 20ko autoan jasotako higiezinak besterentzeko; alegia, 32 garaje-plazen eta 3 trastelekuen eta merkataritza-lokal baten gaineko administrazio-kontzesioa ematea DIQUE CUATRO, SL enpresak eskainitako zenbatekotik gorako kopuru batean.

Baimen horren berri eman zaio udal honi 2018ko urtarrilaren 18an.

2018ko otsailaren 21eko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da onartzea honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA


LEHENA.- Baldintza ekonomiko-administratiboak jasotzen dituen agiriko BERROGEITA HIRUGARREN xedapenaren arabera, bi aldeek adostu dute Zuberoa kaleko lurpean ibilgailuentzako aparkalekua egiteko CONSTRUCCIONES BRUES, SArekin 2002ko martxoaren 21ean sinatutako akordioa suntsiaraztea, eta indarrik gabe uztea adostea.

BIGARRENA.- Kontratua suntsitzeko CONSTRUCCIONES BRUES, SA esleipendunari ordaindu beharreko zenbatekoa 163.000 euro izango da, gehi eragiketa horren ondoriozko gastuak eta zergak, Udalari dagozkionak.

HIRUGARRENA.- Eragiketa 2018ko aurrekontu luzatuan dauden aurrezki garbien kargura finantzatuko da.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri ematea BRUES CONSTRUCCION, SARI.

Eztabaida



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Proposamena zertan datzan azaltzen du nahiz eta alderdi politiko guztiek ezagutzen duten; izan ere, gai hau behin baino gehiagotan eztabaidatu da Tokiko Gobernu Batzarrean.

Esan du operazioa garrantzitsua dela eta operazio hori egin ostean, zehaztu beharko dela udalak nola esleituko dituen aparkaleku horiek.

Kontu-hartzaile jn

Adierazten du orain bozkatuko den akordio proposamena onartzen bada, operazio horren inbertsioa 2018ko aurrekontuetan aurreikusi beharko litzatekeela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua erregulatzeko araudiaren onarpena.

Proposamena


Etxez etxeko laguntza zerbitzua erregulatuko duen araudi berria onartzeko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da. Helburua hau da: zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen proposamenetara eta MATIA Fundazioak zerbitzuen gainean egin duen azterketaren ondorioetara egokitzea eta hobetzea.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko otsailaren 2an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Horretarako eman den epean NAGUSILANek pertsona nagusi bakoitzak duen etxebizitzaren egoerari buruzko sugerentzi edo ekarpena egin du.

Gizarte-Zerbitzuetako teknikariek uste dute araudiaren xedea etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea dela eta ez zerbitzuaren onuradunen etxebizitzetan egin beharreko egokitzapenen diagnostikoa eta proposamena egitea.

Edozelan ere, horiek kontuan hartuko dira pertsona nagusien etxebizitzei zehazki lotutako beste esparru batean.

Gainera, 50 urte baino gehiago dituzten eraikinek Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren ziurtagiria eduki behar dute. Ikuskapen horretan eraikinak dituen gabeziak diagnostikatu egiten dira eta baita egin beharreko konponketak ere.

2018ko otsailaren 21eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua erregulatzeko araudiari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago) eta 2008ko urriaren 16an onartutako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudia indargabetzea.

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari and

Esan du Osoko Bilkurarako deialdia egin ostean, Gizarte Zerbitzuetako sailetik, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioa arautzen duen prezio publikoaren ordenantza bidali dela. Hortaz, prezio publikoaren ordenantza erregulatuazalea araudiarekin batera onartu behar denez, eta hori ez zenez akordio proposamenarekin batera deialdian bidali, akordio proposamenaren barnean sartzen du.


Beraz, akordio proposamena honela idatzita geratzen da:

Proposamena

Etxez etxeko laguntza zerbitzua erregulatuko duen araudi berria onartzeko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da. Helburua hau da: zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen proposamenetara eta MATIA Fundazioak zerbitzuen gainean egin duen azterketaren ondorioetara egokitzea eta hobetzea.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarik dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko otsailaren 2an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean NAGUSILANek pertsona nagusi bakoitzak duen etxebizitzaren egoerari buruzko sugerentzi edo ekarpena egin du.

Gizarte-Zerbitzuetako teknikariek uste dute araudiaren xedea etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea dela eta ez zerbitzuaren onuradunen etxebizitzetan egin beharreko egokitzapenen diagnostikoa eta proposamena egitea.

Edozelan ere, horiek kontuan hartuko dira pertsona nagusien etxebizitzari zehazki lotutako beste esparru batean.

Gainera, 50 urte baino gehiago dituzten eraikinek Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren ziurtagiria eduki behar dute. Ikuskapen horretan eraikinak dituen gabeziak diagnostikatu egiten dira eta baita egin beharreko konponketak ere.

2018ko otsailaren 21eko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua erregulatzeko araudiari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago) eta 2008ko urriaren 16an onartutako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudia indargabetzea.

2.- Prezio publikoaren Ordenantza Arautzailea onartzea.


3.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

4.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Alkate jn.

Proposamenari buruzko informazioa eman du, eta azaldu du Osoko Bilkuretarako Gaiak aztertzen dituen Batzordearen ondoren Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak eta departamentuko koordinatzaileak zerbitzuaz hitz egiteko bilera izan zutela Foru Aldundiarekin. Zerbitzuak araudiaren testuan hainbat aldaketa egitea ekarri du, eta horiez gain, idazkariak aipatu moduan, zerbitzuaren prezio publikoa erregulatuko duen araudi bat.

Horregatik, testu arautzaile berria eta baita prezio publikoaren ordenantza ere Osoko Bilkurarako deialdiaren ostean bidali da.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Maiza and.

Bere kexa adierazten du Osoko Bilkurako kideei dokumentazioa horren berandu bidaltzeagatik.

Esan du Gizarte Zerbitzuetako Koordinatzaileak astelehen goizean bidali zuela mezu elektronikoa dokumentazio berriarekin eta haiek gaur goizean jaso dutela.

Idazkari and

Erantzuten dio egia dela dokumentazioa astelehen goizean heldu zela, 14:10ean. Egun horretan 13:45ean etxera bazkaltzera joan zela 15:15ean Ordiziahitzen jarraipenerako Batzorde Paritarioa zegoelako eta beraz, egun horretan ez zuela mezua ikusi.

Hurrengo egunean, asteartean, Osoko Bilkuraren dokumentazioaz arduratzen den administraria ez zen etorri ondoezik zegoelako eta asteazkenean ere, ez zen etorri. Gainera, asteazkenean, langileek 4 orduko lanuztea egin zuten.

Ostegunean lehen orduan, bidali beharreko dokumentazio guztia bilduta eta horren ardura zuen administraria lanean, aipatu dokumentazioa bidali zen, zeinak balio edo izaera funtsezkorik ez duten aldaketak eta formalitateak jasotzen baititu.

Gaineratzen du egoera hori berriz errepikatzen bada (denboraren antolaketa eta baliabide pertsonalei dagokienez), berriz ere dokumentazioa ahal bezain azkar bidaliko dela. Akordio proposamenak garaiz bidaltzea sail bakoitzaren erantzukizuna da. Deialdia egin ostean aldaketak egitea ez da Idazkariaren erantzukizuna, nahiz eta horrek aldaketak kontuan hartzeko ahaleginak egiten dituen.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren onarpena.

Proposamena.

Salmenta ibiltaria arautuko duen ordenantza berri bat onesteko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jendurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko otsailaren 1an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean ez dira ekarpen edo alegaziorik aurkeztu.

2018ko otsailaren 21eko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Salmenta ibiltaria arautzen duen araudiari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago) eta 2001eko apirilaren 26an onartutako Salmenta ibiltariaren araudia indargabetzea.**
- 2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.**
- 3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantza behin betiko onartuko litzateke.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Idazkari and

Azaltzen du ordenantzaren testuak aldaketa txikiren bat izan duela Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordeak erabakitako testuarekiko. Aldaketa 14. artikuluan dago, hain zuzen ere, salmenta-postuen eskatzaileek aurkeztu behar duten dokumentazioan. Aldaketa horiek beharrezkoak dira indarrean dagoen administrazio-prozedurari buruzko arautegi berria ezartzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Kreditu gaikuntza aparkaleku bat egiteko proiektuaren erredakziorako.

Proposamena

Beste behin, Ordizia hobetzeko aukera garrantzitsu baten aurrean gaude. Herritarrei eta bisitariei eskaintzeko azpiegitura berria eskaintzeko moduan. Aukerak ez dira beti izaten eta honakoa behin baztertu bagenuen ere, berriz jarri nahi dugu mahai gainean.

Ordiziak asko du eskaintzeko. Herri dinamikoa da, zerbitzuak ematen ditu eta jendea erakartzen du. Denetik du, ugari, Azoka, komertzioa, ostalaritza, jaiak, kirola, kultur ekintzat, hezkuntza mailako zerbitzuak... baina azpiegitura baten beharra dugu hauek denak osatzeko: aparkaleku bat erdigunean

Ez da gure iritzia soilik. Iaz egindako partaidetza prozesuetan -Aurrekontuena bat, eta Mugikortasunaren ingurukoa bestea- herritarrek ere luzatu digute horren beharra. Merkatari eta ostalariek ere horrela diote. Erdigunea itxita dago. Erdiguneko bizilagunek ez dute aparkatze lekurik. Alboko kaleetako plazak bizilagunek betetzen dituzte. Auzoetan bizi direnak arazoiren batengatik (osasun zentrorra etortzeko, adibidez) erdigunera inguratzeko autoa behar dutenean, zailtasunak dituzte aparkatzeko. Eta zeresanik ez bisitariek. San Bartolome auzoan badugu parking bat. Baina ez erdigunean eta auzoko eskaintza osatzeko orain dugu aukera.

Iaz ere, Europatik laguntza garrantzitsu bat jasotzeko modua dugu. Oso garrantzitsua, obra guztiz ordaintzeko adina. Baina guk gure parte jarri behar dugu horretarako: proiektua erredaktatzeko 60.000 euroko partida onartuz.

Garraio publikoa bultzatu behar dela? Bai, ados. Autobus zerbitzuak hobera egin du eta tren geltokirako lortu dugun hobekuntza ezagutzera eman genuen.

Erdiguneak oinezkoentzat izan behar direla? Bai, noski, horrela dugu. Baina gerturatzeko gutxienez erreztasuna emanda.

Ordiziako etorkizuna eraiki behar badugu, herri jasangarrigoa eta irisgarrigoa nahi badugu, aurre egin behar dugu eta aukera paregabea dugu hau.

Guzti honengatik, hurrengoa proposatzen dugu:


1.- Dagokion diru partida sortzea, 60.000 € hain zuzen ere, aparkaleku proiektua egiteko, publikatuko den deialdian aurkeztu ahal izateko.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Uste du herriak aparkatzeko azpiegitura bat behar duela udalerraren erdian.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Gaia askotan atera da eta beharrian horretan berresten da, merkatariak eta azokariak bezala, azken horiek Tokiko Gobernu Batzarrean ere kezka adierazi dute.

Azpiegitura horretarako fintzantzazioa lortzea posible da, baina horretarako proiektu bat eduki behar da.

Ezenarro jn.

Bere taldeak eta Ordizia Orainek lortu zitezkeen diru-laguntzen programari buruzko informazioa eskatu zuten eta onartzen du, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko Sailburuordeak aurkezpen argia egin zuela eta denak pozik irten zirela informazio-bilera horretatik.

Badaki azoka sustatzea beharrezkoa dela, baina baita beste alderdi batzuk ere, kultura adibidez.

Esan du bilera horretan ideia asko argitu zirela, baina baita zalantzak sortu ere. Harrituta dago bidalitako akordio-proposamena ez delako batere aldatu aurreko Osoko Bilkurako proposamenarekiko. Ez du ezer berririk gehitzen.

Alkate jn.

Erantzuten dio konpromisoa finantzazioaren ehuneko ehuna lortzeko dela eta aurkeztu behar den proiektua nola kudeatu behar den lantzen ari direla.

Ezenarro jn.

Esan du proiektuak bi finantzazio iturri izango zituela jakinarazi zela: Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Harrituta geratu da asteartean, herenegun, jakin zuenean dirura ez dela Europatik etorriko, baizik eta EREIN (Eusko Jaurlaritza) programatik.

Alkate jaunari galdetzen dio ia mantendu dezakeen astearteko bileran esan zena, hau da, finantzazioa osoa izango zela eta laguntza hori lortzeko aparkaleku proiektua aurkeztu behar izango zela soilik eta garrantzitsua zela kalitatezko proiektu bat egitea.

Alkate jn.

Erantzuten dio egia dela proiektua prestatu eta osatu behar dela, baina Eusko Jaurlaritzak lan horretan laguntzeko konpromisoa hartu duela eta Eusko Jaurlaritzarentzat Ordizia lehentasunezko proiektuetako bat dela.

Ezenarro jn


Gogoratzen du programaren aurkezpena egin zuen pertsonak esan zuela aurten dagoeneko ez duela denborarik emango eta Alkateak aldiz, esaten du "azken aukera" dela.

Proiektu interesgarria iruditzen zaio, baina nekazaritza-aldeak dira laguntza programaren xedea eta gu hiraldea gara.

Sailburuordeak adierazi zuen aparkalekuaren proiektua ez dela lehentasunezkoa deialdiaren objektu bezala eta horregatik, proiektu on bat idaztea beharrezkoa dela.

Ondorioa da hau ez dela azken aukera, Alkateak esan bezala. Diru-laguntzak ez datoz Europatik eta Sailburuordeak esan zuen bezala, lehentasuna daukate nekazaritza zonaldeetan eragitea helburu duten proiektuek. Hortaz, lortzea zaila ikusten du ez bada proiektu on bat idazten.

Aurreko Osoko Bilkuran aurkeztutako proposamerekiko ez da ezer aldatu, eta horretaz gain, akordioan bertan proiektuaren erredakziorako partida bat eratu da ohikoa ez den moduan. Uste du gaia gehiago landu behar dela eta gobernu taldeak eman dituen datuak okerrak direla.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Informazioan gezur bat baino gehiago dago.

Berriz ere, harridura adierazten du; izan ere, aurreko Osoko Bilkuran gaia mahai gainean utzi zen, oposizioko alderdiek eskatu zuten informazioa herenegun bidali zuten eta gaur, berriz ere, gaia Osoko Bilkurara ekarri dute.

Alkate jn.

Erantzuten dio haiek ez dutela esan azken aukera denik. Berak esan zuela proiektua egiteko dirua bazegoela eta gaineratzen du, uste duela arazoa aurrera egin nahi ez izatea dela.

Eguren jn

Esan du Sailburuordeak erabili zituen esaldiak hauek izan zirela: "proiektua landu behar da", "dagoeneko berandu zabiltzate", "aukera gehiago egongo dira"...

Ez du ulertzen nola Alkateak hainbat kontu ziurtatu ditzakeen; izan ere, Gobernuan dagoen eta bere alderdi berekoa den Sailburuordeak ez zituen ziurtatu. Argi eta garbi esan zuen ezin zela bermatu.

Iturrioz jn

Hainbat kontu azaltzen dizkio Eguren jaunari, besteak beste, proiektu hau orain dela bi urte egin zela, baina ezin izan zela aurkeztu.

Soto and

Esan du bileran galdetu zuela zergatik aparkaleku bat eta erantzun zena aipatzen du, hau da, partida zabaltzea beharrezkoa dela.

Sukia and

Esan du Sailburuordeak jakinarazi zuela orain dela 4 hilabete ekin zitzaioela lan honi eta beste udalerrri batzuk eta merkatariak inplikatzeko lortzen badugu eta proiektu on bat proposatzen badugu, lortu daitekeela.

Aparkaleku-proiektua alde batera utzi behar dela esan du, eta egin asmo den proiektua ez den beste proiektu estrategiko batean lanean hasi behar dugula.

Puntua berriro mahai gainean geratzea proposatu du.


Ezenarro jn.

Bere iritziz, alkatea gaia xantxia moduan planteatzen ari da. Aparkaleku-premia gaia aztertu ondoren ikusiko da, eta aukera hori beste batzuekin batera aztertuko da; esate baterako, seinaleak, eremu urdinean aparkatzea, eta abar.

Berriro ere esan du proiektuaren inguruan hainbesteko lan egin bada, erakusteko lan hori. Izan ere, beraiek gaur gaurkoz orri bakarreko akordio-proposamena baino ez dute ikusi, osoko bilkurara onartua izan dadin ekarri den hori bera.

Sailburuordeak esan zuen proiektua lantzea eta prestatzea gutxienez urtebeteko lana dela.

Eta bere taldearen asmoa trabak jartzea baino ez dela leporatuta, ez dela egia erantzun dio, eta Majorirena bezalako proiektuek agerian uzten dutela lan egiteko prest daudela



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Alkate jn.

EAK 2010. urtean, ordurako Barrenan aparkaleku bat egiteaz hitz egiten zuela esan du, eta horri buruzko testu bat irakurri du. Halaber, pasa den legealdian ere Barrenan aparkaleku bat egiteko proiektuaz hitz egin zen.

Sailburuordearekin egindako bileran bi punturen inguruan hitz egin zela azaldu du:

- 1) Aparkalekua
- 2) Beste proiektu estrategiko bat

Ezenarro jn

Esan du hain zuzen ere beste proiektu estrategiko horrek ematen diola, ematekotan, balioa aparkaleku proiektuari.

Aranburu jaunak grabazioa entzun duela esan du, eta antza denez eskatutako informazioari buruzko interpretazio desberdinak daudela.

Dubreuil jn

Gogora ekarri du bileran argi geratu zela aurrekontu-partida bat ireki beharra zegoela lanean hasteko. Partida hori sortzeko arazoa non dagoen galdetu du.

Sukia and

Esan du Sailburuordetzak bere babesa eman duela herri hau suspertzeko, eta orain mahai gainean dugula hori egiteko aukera. Alabaina, ez aparkaleku-proiektuarekin, proiektu global eta estrategikoarekin baizik; honek, beharrezkoa bada, aparkaleku-azpiegitura eska dezake.

Eguren jn

Honen esanetan, proiektuarentzako finantziazio-iturriak azaltzera etorri zen pertsonak aipatu zuen, argi eta garbi, lehiaketa publikoa zela, eta hortaz, inork ez dezakeela finantziazioa berma. Esan zuen, hori bai, proiektu on bat aurkeztuz gero, finantziazio hori lor dezakegula.

Alkate jn

Haren esanetan, asmoa kudea daitekeen proiektu bat edukitzea da.


Soto and.

Esan du sailburuordeak aipatu zuela aparkaleku-proiektu bat landu beharra zegoela Ordiziaren birmoldaketa estrategikorako. Alabaina, sailburuordeak argi utzi zuen aho batez adostutako eta eskualdeko beste udalerrri batzuekin bat etorrita landutako proiektua izan behar zuela.

Maiza and.

Bere iritziz, Ordizia suspertzeak du garrantzia, eta EA gobernuan zegoenean proiektu hori ez zegoen "cirenes"en. Galdera da ea prest gauden proiektu integral bat lantzeko. Gobernu-taldeari gardentasuna, zintotasuna eta proiektuaren inguruan gobernu-taldeak burutu dituen kudeaketa guztiei buruzko informazioa alderdi politiko guztien esku jartzea eskatu dizkio.

Horrez gain, bere iritziz, aparkaleku-proiektua gauzatzeak ordiziarron geroa, eta zein neurritan ordiziarron bizitza hipotekatuko digun baloratu behar dugu.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Informazioa falta dugu, eta hori gabe ezin dugu erantzukizunez erabaki. Lanerako gaitasuna aitortu behar zaigu, ez gara ari, leporatu zaigun moduan, proiektua zapuztu nahian; lanean eta proposamenak egiten ari gara.

Dubreuil jn

Maiza andreak esan du "maltzur" deitu diola, baina oposizioari. Gardentasuna eskatzen du. Proiektua atzera botatzeko argudioak edo arrazoiak zein diren galdetu dio.

Maiza and.

Erantzun dio ez dituela zertan azalpenak eman.

Eguren jn.

Alkateari eskatu dio atera ditzala arestian aipatutako eta 2014koa omen diren planoak eta dokumentazioa, mugikortasun-planaren dokumentazioa.

Ezenarro jn

Ondorioz atera du kontu asko eta asko daudela proiektuaren inguruan zehaztu beharrekoak. Dendariek esan ahal izango dute zein den beraiei hobekien datorkien aparkalekuaren kokapena, baina udala da gaia aparkalekuaren kokapena sakon aztertu behar duena, datu egiaztatuekin

Gaia mahai gainean uztea erabaki da, oposizioak eztabaidan azaldu dituen kontuak argitze aldera.

Sukia and.

Parte-hartzeak zehatz mehatz idatzi ahal izateko osoko bilkuretako grabazioari igorri beharko zen.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, gaia mahai gainean geratzen da.




'Galderak eta eskaerak' puntura pasa aurretik, Eguren jaunak eguneko gai-zerrendan beste puntu bat sartzea proposatu du; EH BILDUREN eta O. ORAINEN mozioa bat, ARANZADI ELKARTEAK aurkeztutako txostenaren inguruan Enirio-Aralar Mankomunitateko zuzendaritza-batzordeak hartutako akordioa dela eta.

Udalkideei kopia bana banatu diete.

Puntua gai-zerrendan sartzearen inguruko bozketa egin da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Puntua sartzea aho batez onartu da.

Jarraian, Alkate jaunak puntuaren berri eman du.

Proposamena

ENIRIO-ARALAR

ZIOA

Iragan asteazkenean, hilaren 21ean, Enirio-Aralar Mankomunitateak ez-ohiko batzarra egin zuen puntu bakarria lantzeko: Aranzadi Zientzia Elkarteari Aralarri buruz egin berri duen azterketa Mankomunitateari aurkezteko deialdia egitea.

Emaitzari dagokionez, mankomunitateko zazpi herritako ordezkariak, aurkezpen hau egitearen alde bozkatu zuten, eta beste zazpiak kontra. Kontra bozkatu zuenetariko bat Ordiziako alkate eta Mankomunitateko Presidentea izan zen, lehendakari izateagatik duen kalitateko bozka erabiliz berdinketa hautsi zuelarik bere alde eginez.

Mankomunitateko Presidente den Ordiziako alkateak, Aranzadi zientzia elkarte prestigioduna gutxietsi eta mespretxatu zuen, iazko urtarrilean Batzar Nagusietan Aranzadik egindako azalpenak tamalgarritzat jo eta Aranzadik sinesgarritasunik ez duela adieraziz.

Halako adierazpena iraingarria da, Aranzadi elkarteak herri honi egin dion ekarpenari erreparatu ezkeror soilik, arkeologian, memoria historikoan, zientzian, naturgintzan edota hainbat eta hainbat esparrutan. Baina are eta iraingarriagoa, elkarte hori osatzen duten zientzialariak duten sinesgarritasuna Ordiziako alkatearen sinesgarritasunarekin alderatuta.

Demokrazia eta bozen emaitzak erabiltzen dira argudiotzat, baina demokratikoa al da Ordiziako alkatearen kasuan, osoko bilkurak hartutako erabakien kontra bere interes pertsonalak defendatzen dituen bozka ematea?

Ordiziako alkateak Ordiziako Udalaren benetako nahia defendatzen ez duela ikusita, honako eskaera luzatzen diogu osoko bilkurari:

ESKAERA


- 1. - Ordiziako Udalak Aranzadi zientzia elkarteari egindako azterlana aurkeztu dezan eskaera helaraztea, aurkezpen hori Ordiziako Udaletxeko pleno aretoan burutu dadin.**
- 2. - Ordiziako Udalak, Enirio-Aralarren ordezkariak duten gainerako udaletara Aranzadiren aurkezpen bilerarako gonbidapena bidaltzea.**

Eztabaida

Eguren jn

Mozioa osoko bilkurara ekarri izanaren arrazoia zein den azaldu du.

Esan du ez dela lehenengo aldia Ordiziako Udaleko osoko bilkurak Enirio - Aralar Mankomunitatearen inguruan akordioak hartu eta ondoren Ordiziako mankomunitate horretan duen ordezkariak, alkate jaunak, ez bozkatzeko osoko bilkurak hartutako erabakiaren arabera.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Haren hitzetan, mozioak eskatzen du, soilik, ARANZADI ELKARTEAK Enirio-Aralarko mendiei buruz egindako azterlanaren aurkezpena egitea. Datuei buruzko informazioa ematea da kontua, eta ez daki zergatik sortzen duen horrenbesteko beldur datuak herritarrei helarazteak.

Gogora ekarri du 2017ko uztailean mankomunitateak egin zuen ezohiko eta premiazko batzarrak erabaki zuela ARANZADIK azterlan bat egitea une hartan bizi zen tentsioa baretze aldera.

Bere iritziz, izen handiko elkarteak da egiten dituen lanei dagokienez.

Eskabideak bi eskaera ditu:

1. - Ordiziako Udalak Aranzadi zientzia elkarteari egindako azterlana aurkeztu dezan eskaera helaraztea, aurkezpen hori Ordiziako Udaletxeko pleno aretoan burutu dadin.

2. - Ordiziako Udalak, Enirio-Aralarren ordezkariak duten gainerako udaletara Aranzadiren aurkezpen bilerarako gonbidapena bidaltzea.

Alkate jn

Haren hitzetan, hark mankomunitateko batzarrean esan zuen ez zekiela zer hitz-egina zegoen alderdi politikoen artean, eta mankomunitatearen apustua abeltzain-sektorearen eta horiek egiten duten lanaren aldekoa dela. Ildo horretan, akordioa hartu zen 2016ko abenduan, mankomunitatearen estatutuek exijitzen duten boto kualifikatuen gehiengoarekin.

Eguren jn.

Alkateari galdetu dio ea egia den ez duela alderdi politikoen eta Aranzadiren arteko akordioa ezagutzen, azken horrek azterlana egin zezan.

Alkate jn

Erantzun dio otsailaren 21ean (batzarra egin zen eguna) ez zuela akordioa ezagutzen.

Eguren jn

Berrito galdetu dio alkateari zergatik halako beldurra ARANZADIK informazioa emateko.

Haren iritziz, mankomunitateko mendiei buruz ARANZADIK egindako txostena adituen azterlana da, eta ez du ulertzen zergatik ez duten nahi azterlan hori aurkeztea.

Alkate jn

Erantzun dio, beste behin, mankomunitateak onartutako ekintza-plan bat dagoela.

Eguren jn


Esan dio ez dela egindako galderari erantzuten ari.

Sukia and

Gogora ekarri du Enirio-Aralarko Mankomunitatearen batzarrak indarrrik gabe uztea erabaki zuela.

Alkate jn

Aipatu akordioa argitu dio.



Ordiziako Udala

2018IOSB0002

Bozketa

Aldeko botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
Kontrako botoak: 6 (EAJ-PNV 5, PSEE-PSOE 1)
Abstentzioa: 0


Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

13.- Galderak eta eskaerak.

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEAK

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIAK

En Ordizia siendo el día **1 de marzo de 2018** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE:

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

CONCEJALES PRESENTES:

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

SECRETARIA:

Dña. Ana Urkizu Kerejeta

INTERVENTOR:

Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui

ORDEN DEL DÍA

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación del Acta del Pleno celebrada el 25 de enero de 2018.
- 2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de febrero.
- 3.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de febrero.
- 4.- Moción de EH-BILDU sobre KULTUR LAB.
- 5.- Moción presentada por Ordizia Orain de apoyo a la huelga del día 8 de marzo.
- 6.- Moción de PSEE-PSOE sobre creación de una APP contra las agresiones sexistas.
- 7.- Moción presentada por Ordizia Orain sobre apoyo al movimiento ciudadano por las pensiones dignas.
- 8.- Resolución del contrato para la explotación del servicio de estacionamiento subterráneo de Zuberoa Kalea.
- 9.- Aprobación inicial del Reglamento Regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio.
- 10.- Aprobación inicial de la Ordenanza municipal de Venta Ambulante.
- 11.- Habilitación de crédito para redacción de proyecto de ejecución de un parking.

ASUNTOS TRATADOS POR ORDEN DE URGENCIA:

- Moción presentada por EH-BILDU y O.ORAIN sobre acuerdo de la Junta de la mancomunidad de Enirio-Aralar en relación a informe de Aranzadi Elkarte.

ASUNTOS TRATADOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:

- Solicitud de ASKAPENA
- Seguimiento de acuerdos adoptados por el pleno de la corporación
- Solicitud de constitución de una mesa de trabajo para el estudio de necesidades de aparcamiento

HORARIO

HORA INICIO: 19:00 horas.

HORA FINAL: 22,45 horas.



Antes de iniciarse la sesión plenaria el Sr. Alcalde propone que a las 20,00 horas se suspenda el pleno para que los miembros del mismo puedan sumarse a la concentración que a esa hora se llevará a cabo en la plaza mayor en favor del movimiento de las mujeres dentro del programa de acciones que se llevarán a cabo con motivo del Día Internacional de las Mujeres.

Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 25 de enero de 2018

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 25 de enero de 2018

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sra. Maiza

En relación al punto 3 del acta "Informe de Reparación del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de enero" solicita información de cómo se encuentra el contrato de adjudicación del servicio de escuela infantil a ALOTZA HAURTZENDEGIA.

Sr. Alcalde

Le responde que está a falta de constituir la garantía definitiva que establece la ley y que se les ha dado plazo hasta el próximo mes de abril.

Votación

Realizada la votación ofrece ésta los siguientes resultados:

- Votos a favor: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
- Votos en contra: 0
- Abstención: 0
-

Declara en consecuencia el Sr. Alcalde aprobada el acta por unanimidad.



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.

2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de febrero.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.

El Ayuntamiento pleno queda enterado



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.

3.-Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de febrero

NOTA DE REPAROS DEL INTERVENTOR (02/2018)

El Departamento de Secretaría da cuenta al interventor de los siguientes contratos que están fuera de plazo:

Razón social	Objeto del contrato	Contrato	Vto plazo ejecución	Prorrogas	Precio del contrato	Gastado 2016
Gesmupal	Recaudación ejecutiva	03/11/2003	03/11/2007	—	Variable	30.943,58
Juan M. Garmendia Amundarain	Conserje Casa de cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84+ IVA mensual	42.817,20
Landarri S.L.	Servicio de cementerio	10/03/2005	10 años 10/03/2015	Decreto prorroga hasta nueva adjudicación Vto:12/03/2016	Precio máximo 18.000 euros + IVA	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Servicio Ayuda Domiciliaria	24/12/2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Prorroga anual hasta nuevo contrato	Según tarifas	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo.	27/04/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016	Prorroga anual hasta nuevo contrato	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	63.806,72
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	Gestión centro D'Elkatuz	24/07/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido.	102.755,36
INDOK	Gestión Munigex	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido.	11.243,96
LAIA S.COOPI.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido.	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano	Contratación provisional 10/10/2013	Indefinida hasta nueva contratación		18,07 euro hora +IVA	163.343,53
Ainara Ormaetxea Harto	Servicio de Inmigración	01/01/2016			21.773,95 Euros IVA incluido.	21.966,02

Guardería Alotza Asociación de padres	Gestión Serv. Municipal de Escuela Infantil.	01/09/2009	Máximo 6 años 01/09/2009		Ver contrato. Tarifas+subv +contr prestación Ayto de 33.500	388.104,44
---------------------------------------	--	------------	-----------------------------	--	---	------------

A) Normas aplicables:

a.1) Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Artículo "23. Plazo de duración de los contratos.

2. Sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos, la duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas.

